

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

49. zk. 1997ko urtarrila


geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



zorte on san anton

arratsalde
bat boloetan





larrua
antea
bakeroak
pana
...
prakak
jertseak
txupak
kamisetak
alkandorak
eskirako trajeak
...



2. eskuko arroparik hoberen eta merkeena
Amsterdamgo Plaza Gasteizen

ANDRE MARI ZURITREN PLAZA, 3
TFNOR. 25 67 06 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



97ko urtarrila

geu gasteiz
aldizkaria

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

INAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrazkiak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

Ni, neure etxean ere hanka-motz



KULTURAKO zinegotzia ez-euskaldunaren aurrean bere idazkariarekin edota zuzendariarekin euskaraz mintzo banaiz, ez naiz gaizki sentitzen. EDUKAZIO gabekoa, alegia. Ez baitut pentsatzen EDUKAZIO hutsegiterik gertatzen denik, KULTURA falta baino.

Herri bateko hizkuntza ofizialean norbait ez bada irakurtzeko edo idazteko gai eta zer esan, hitz egiten moldatzen ez bada, analfabetoa deitu ohi zaio, hau da, kulturarik gabea.

Berdin, epaile, erizain, osagile eta ilustratzaile ez euskaldunekin topo egitean ez da EDUKAZIO hutsegite bat gertatzen, baizik heziketa, formazio edo kultura premia, nire irudiko behinik-behin.

Hau da, nire lagunak tximeletaren ernalketaz, internetaz edota 16 zilindrotako motor katxarroaz ari direnean mutu gelditzen naizen bezalaxe halaxe ikusten dut euskaldunon aurrean aho zabal eta ezjakin, gurean hain ugariak diren vascoak.

Nire zuzendariak bere aurrean euskaraz aritzen naizen aldioro, eta askotxotan gertatzen da, ez dit inoiz adierazi EDUKAZIO

arauak hausten ditudanik, errespetu alerik ez diodanik, egoera garbi asko onartzen du eta errespetu osoz eta edukazio handiarekin euskaraz jarraitze-
ra gonbidatu eta behartzen nau.

Ba neuri ere beste horrenbeste gertatzen zait hainbeste maite ditudan Lapurdi, Behe Nafarroa, eta Zuberoako herrikketarik nabilenean. Hots, gure herriko hiru hizkuntzetariko batean oso baldar aritzen naizela, nahiz eta batxilerreko urteak eman nituen frantses aditz eta ahapaldiak ikasten eta, aldie-tan, Izpegiko nire osabaren bentan turistei "souvenirrak" saltzen aritu nintzen. Baina dena nahiko alper eta alperrez nonbait, lagun batek esan ohi didanez alperrik ihardutea baino alperra izateari heldu nion nik ere, nonbait.

Sarako nire osaba-izeben etxean gonbidatu frantses elebazarrekin aritzen direnean, ez dut nirekiko inoiz edukazio errespeturik gabe ari direnik pentsatu. Lotsa, amorrua eta pena ematen baitit, nire kultura mailan hain aurrerapen kaxkarraren egin izana.

Gutiz bestela eurek ez dute inolako arazorik nire lagun espainol edo gaztela (esan behar) hiztunekin aritzeko. Hiru hizkuntzetan batere arazorik gabe aritzen baitira. Euren etxean Frantziako telebista kateak, ETB eta espainolak ikusten eta jarraitzen baitituzte. Eta gu hemen, berriz, plusak eta replusak eta satelitekoen atzetik itsu-mitsuan gabiltza Frantziakoak ahazturik.

Noizko Baionako eta Gasteizko haurrak han eta hemen etxe ba-karrean bezala. Noizko ohikoa izatea, gure selekzioa lortu ar-tean, Athletikeko jokalariaik Es-painiako selekzioan ikusten ditugun eran, Bixente Lizarazu eta besteak Frantziako elastiko-arekin ikustea eta entzutea gure hedabideetan. Hemen Madril gertatzen den oro jakiten dugu eta jarraitzen, gauzarik arrunte-na bezalaxe eta Parisen gertatzen direnak Afganistanekoak bailiran. Noizko Bordeaux, Marseille eta Lyoneko berriak, Malaga, Alakante eta Salaman-kakoak bezainbat ezagun eta arruntak izatea. Noizko Frantziako nazionalitateak Espai-niakoen pare ezagutzea, ohar-tuz gure eremu naturala beran-tza beste dela gorantz, orain baino ehundaka urte lehenago-tik ere. Ezin ibil gintezke beti-ko eran etxean bertan ezin uler-tuta, batzuk hego aldera begira, besteak ipar aldera elkarri biz-karra emanez.

Besteei, beti iparraldekoiei eskatuz edo exijituz euskaraz ez badakite gaztelaraz egitera. Inoiz geuk odolkiak ordainetan ematea burutik pasa gabe jarre-rarik txabinistena mantentzen dugularik. Geu Espainia sakro-santuan muinetaraino sartuta gaudela onetsi gabe. Nik neuk behin-behin onartzen dut eta ozen. Nire etxean, neure herrian HANKA-MOTZ izaten darraidala. Eta ez EDUKAZIO faltagatik, KULTURA alper, ezintasun, axolagabekeria edota nahi duzen aitzaki-mai-zaki tarteko.

ROBERTO OÑEDERRA

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzukizunik

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Gure gizartean oso zabalduak eta errotuak daude zori-jokoak: loteriak, kinielak, bonolotoa eta mota guzietako apostu eta zozketak. Guztien artean ospetsuena, pasa berria den Eguberritako loteria izaten da.

Gutxi izango dira Gabonetako loterian zertxobait jokatzeko ez dutenak.

Konpromezuren bat dela, ohitura dela edo tradizioa dela gehienok sos batzuk jokatu ohi ditugu. Kontuan hartzekoa da, gainera, azarezko joko gehienetan antolatzailea eta irabazle nagusia Estatua bera izaten dela (itsuen loteria salbuespen aipagarria litzateke).

Gasteizen, bestalde, Gabon jaietako gastuen ostean eta urtarileko merkealdiekin batera, San Anton zozketa bitxia egiten da. Zergatik ote bitxia? Ba, zori-joko honetako lehen saridunak txerri handikote bat irabazten duelako.

Ikaragarritzko txerria irabazlearentzat! Horretaz gain, boletoen salmentan lortutako etekinak Gasteizko benefizentzia alorrean erabiltzen dira. Bistan da San Antoneko zozketak ez duela zer ikusi handirik Estatuak antolatzen dituen beste jokoekin.

txerriaren zozketa



*1 Zer eritzi duzu San Anton zozketari buruz?
Inoiz jokatu al duzu?
2 Diru asko jokatzeko duzu azare-jokuetan?*



PURIFICACION SANZ
dendaria

1.- Oso ondo deritzot. Normalean jokatzeko dut, betiko ohitura delako.
2.- Ezta pentsatu ere! Jokatu aurretik ondo pentsatzen dut zenbat diru gastatuko dudana horretan

Bertsoak



f. ita d. ir. e. nentzat

Urtero legez bildu egin dira familiak mahai inguruan kontu zaharrak gogoratzeko kantu eta berriketan eta berriz ere somatu dira hutsa bihotz bazterrean ta mahaiko aulki huts hartan nor falta den oroitzean ama hasi da malkotan. Herriatik kanpo dauden lagunak alaba eta semeengan dugun maitasun ta mirespena handitzen da gabonetan.

Urte berri batez atrapatu gaitu monarki inposatuak errege magoak diraite indarrean ta magoak ez direnak. Euskal ohiturak ta eskubideak suntsitzeko etorriak monarki zapaltzaileak monarkia kontsumistak nahiko gintuzke isilak argi daukate, entzun ditzaten ozenki gure oihuak. Gora Olentzero ta askatasuna eta kanpora erregeak!



EGILEA:
Ainhoa Ferrón
DOINUA:
zortzi puntukoa



GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korteria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ



ROBERTO BURGOA
funtzionaria



J. KARLOS BESGA
jubilatua



AITOR BEIZTEGI
ikaslea



ESTITXU L. DE ELORRIAGA
basozaina



PIEDI MALMIERKA
ikaslea

1.- Ezin dut gauza gehiegirik esan ez dut ezagutzen eta.

2.- Ez, ez nago joku horien alde. Jokatzan dudanean, Gabonetan adibidez, konpromezuagaik egiten dut.

1.- Garai bateko arrazoiengatik egiten badute ondo iruditzen zait. Baina gaur egun ateratzen duten dirua zertarako erabiltzen duten ez dakit.

2.- Diru gutxi gastatzen dut bai Gabonetan baita urte osoan dauden beste jokoetan ere.

1.- Zozketa egitea ez zait gaizki iruditzen baina txerri bat oparitzea basakeria da.

2.- Oparitzen didatenean jokatzan dut baina bestela ez naiz jokozalea, nahiz eta noizbehinka koadrilan kiniela egiten dugun.

1.- Urtero boleto batzuk erosten ditut. Zozketa honetan, beste jokuetan ez bezala, ateratzen den dirua hobeto erabiltzen da.

2.- Normalean ez dut jokatzan. Inoiz "Primitivan" jokatu izan dut eta Gabonetarako dezimo bat hartu nuen nire lagunarekin.

1.- Arazoa da zozketa egin ondoren ez dudala jakiten non utzi ditudan boletoak. Dena den, gutxi jokatzan dut.

2.- Ikasketa-bidaia, kirol talde baten alde... erosten ditut horrelako boletoak. Gabonetako loteria gurasoen kontua da.



a

Kaixo lagunok! Asmatu duzue. Azaroko argazkiak Lobaina enparantza eta Floridako parkekoak ziren. Irabazleak Raul Garcia eta Erika Borobio izan dira. Zorionak!

txapelketa



b

Hile honetako argazkiak ere oso errezak dira, ezta? Animatu eta idatziguzu.



argazkia non?

Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak

Mikeldi Zinemen eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke

MIKO
izozkiak



Jazkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

KOLDO MENDA ZA

no da?

❑ Koldo Mendaza De La Hoz Gasteizkoa da. Noiz jaioa den galdeturik, berriz, aitza-kiatan da. "Ahazturik daukat euskara. Hirurogeita hamaluan jaio nintzen, urtar-tilaren 2an". Kaprikornio da baina ez dio batere opa horoskopoiari. "Ezta pentsatu ere, ez, ez. Ez dut irakurtzen, bestek irakurtzen duenean ez bada. Baina ez diot kasurik egiten, ezta ezertarako ere!".

❑ Kanpezuak aita eta Maeztukoa amatxo. Bost arrebak ditu. Euskaraz mintzo da arrebatarik batekin. "Euskaldun berri gara". Gasteiz etorbidean hazi zen baina.

❑ Parte Zaharrean bizi da egun, Korrerian. "Eta primeran, hi! Kale lasaia, polita da eta artesau giroa duena. Etxeak ere berreskuratzen ari dira eta gazteak ari dira sartzen. Dendetan eta nabarmena da hori".

❑ Historia ikasi zuen gure hiriburuan eta Madril jo zuen gero. "Artxibistika eta Bibliotekonomia ikasi nuen bertan, batetik, eta Argazkilaritza bestetik". Lau euskaldunekin bizi izan zen han eta hantxe trebatu zen euskaraz. Oraindik ere, Gasteizko AEKn zein IKAn ikasiagatik ere, kutsaturik du euskara, hikako formak edo hitz bukaeretan erakusten duenez. "Pisuko lau

lagunak nongoak ziren? Zarauzkoa bat, *Azpeitike* beste bat eta *Donostiakue* bestea. Han zen euskaraz egin edo mutu geratu!".

❑ Gustatzen zaiolako hitzegiten du euskaraz. "Beti saiatzen naiz euskaraz, dela dendetan edo edozein lekutan. Baina asko galdu dut. Galduta ikusten dut nire burua. Izan ere, askoz errazago hitzegiten nuen euskaraz Madril. Gure hizkuntza zen".

❑ Ikasiak ikasi-hasi zituen ikasketa denak burutu zituen-, argazkilaria da lanbidez. Bestalde, txikitandik ari da argazkiak egiten. Lana fortunatu zitzaion eta argazkilaritzan ari da egun, Ikutzen, Jazinto Benavente 29an.

❑ Denbora gutxi ei du libre. "Agintzen digutenean egin behar ditugu argazkiak, izan larunbatean edo igandean". Mendia eta irakurtzea ditu afizio. "Mendira lasai joan, otartekoa jan... Irakurri, berriz, denetarik. Reverterekin ari naiz oraintxe, baina historia liburu bat agertuko da hurrena akaso". Zernahi irakurtzen du, hortaz, eta beti bukatzen ditu liburuak. "Hasten baldin banaiz, bukatu egin behar dut. Ez dakit zergatik, baina hasiz gero ez daukat liburua bukatu gabe uzterik".

"PRIBILEJIATUEN PARE BIZI GARA KORRERIAN"



Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria, Vitoria-Gasteiz?

Bitoria. Madril nengoenean, pisukoek esaten zidaten: "Zer, bazoaz Bitoria?". Egia esan, Gasteiz ala Vitoria, ez dakit. Ez dut pentsatu. Nirekiko, askoz errazago dira gauzak. "Gasteiza zoaz?". Ongi. "Bitoria zoaz?". Ongi.

Nola esaten da "Calle Corre-ria" euskaraz?

Korreria kalea, ezta?

Zer moduz bizi zara Korre-rian?

Ondo. Pribilejiatuen pare. Erdi-erdian dago eta dena eskueran dugu. Giroa ere berezia da: antikuariak, kale-merkatua larunbatean hilean behin... Beti bizi nahi izan dut Parte Zaharrean.

Zer egin behar da zoriotsu

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

bizitzeko?

Zeure buruarekin gustora izan.

Azkenaldiko poz handi bat?

Ez dakit, bada.

Kezkarik handiena?

Ez nuke jakingo esaten.

Ongi bizi zara, ala?

Bai, ongi bizi naiz!

Zinezalea?

Bai, film frantsesak gustatzen zaizkit. Frantzia bera ere gustatzen zait. Lepoa moztuko didate baina! Gehien gustatzen zaizkidan argazkilariak ere frantsesak dira, mendearen erdi aldekoak eta.

Juniorik bai?

Ez.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Oso lasaia naiz, lasaiegia beharbada. Ni benetan haserretzeko, akzio handiren bat egin behar didate.

Zer eramango zenuke irla batera?

Apartekorik ez. Baina ez dakit joango nintzatekeen ere.

Zer joera duzu oporretan?

Almeria aldera edo. Argi berezia duela diote. Ez dakit egia den baina. Jendea hemen baino askoz naturalago da. Paisaje ederrak ditu, basamortua bera...

Almeriako argia... Argia da argazkia ateratzeko elementurik inportanteena?

Hala diote. Fundamentala da, baina argazki polita egiteko elementu gehiago izan behar da kontuan: burua, teknika... Argia, elementu horietarik bat da.

Zenbat argazki atera duzu Almerian?

Lehenengo aldian, hogeiei erroilu hamabost egunean. Bigarren, hamar bat argazki... Bigarren aldian lasai-lasai joan nintzen, denbora pasa.

Jatun ona zara?

Oso ona. Gustura jaten ditut gure amaren babarrunak eta haragi erre. Postreari dagokionean, berriz... ez naiz gozoza-lea.

Zein da igande goizeko plana?

Lagunekin harremanak izatea. Ahal dudanean goiz jaikitzen naiz. Larunbatetan ez dut parrandarik egiten... ostiraletan, beharbada.

Liburu gomendagarrien bat?

Obabakoak. Euskaraz ikasten ari ginela agindu ziguten. Baina bi aldiz ere irakurri dut, eta hirugarren aldiz ere irakurriko dut, seguru aski. Liburu asko irakurri dut behin baino gehiagotan. Eta pelikulak behin baino gehiago ikusi ere bai: Indiana Jones, adibidez. Liburuetan ere, El nombre de la rosa lau aldiz ere irakurri dut. Zoragarria da: historia, literatura eta intriga nahasten dira bertan eta maitagarria da liburua.

Bizirik?

Ez dut batere handirik.

Zure alderik onena?

Lasaitasuna.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Ezer ere ez. Datorrena datorrela.

Ezagutzen duzu GEU Elkar-tea?

Aldizkaria. Ez dut etxean jasotzen baina nora noan, hantxe aurkitzen dut. Azkenaldian, adibidez, Emakunden eta Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-en irakurri nuen.

Telebista programaren bat?

Pelikulak edo. Gainerakoan, ailegatzen naiz etxera, pizten dut eta aurrera. Ez naiz gehiegi fijatzen.

Tabakoa bai ala ez?

Ez dut erretzen baina lagun denek, denek, erretzen dute. Ez dut erretzen baina ez didate enbarazurik egiten.

Alkoholik?

Errioxako ardoa. Bertara joaten gara ardo erostera. Joan eta, aitzakia horrekin, bertan bazkaltzen dugu. Ardoa ona da.

Zer galdera nahiko zenuke nik zuri egitea?

Ea gustura egon naizen elkar hizketa hau egin dugun bitartean.

Eta erantzuna?

Primeran!

Miel Anjel Elustondo



ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lentine abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza.

Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA

MENDIAOPTIK
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi auzo)
GASTEIZ

KARPA tazo

APARTA suertatu zen abenduaren lehen asteburu luzea, izugarria eta ikusgarria. Mendietan elurra barra-barra eta behealdean euria eta hotza. Jendea, ordea, ekaitz guztiei aurre eginez, Durangoko bidean eta erruz, adin eta moeta guztietako jendea, denak liburu, disko edo teknologia berriko aparailuen ikusminean.

KARPA erraldoia toki egokian jarrita, Durango erdi-erdian. Lehen egunean berrigailuak huts egin bazuen ere, gainontzeko egunetan giro atseginean ibil zitekeen.

Liburuak gainezka eta denetarik. Berriak ugari, unean uneko bakoitzaren aurkezpenarekin. Irakurtzea maite zuenak ezin aurkitu aitzakiarik. Gaztetxoak gogokoan dituzten abeslari edo taldeen diskoak erosi nahian. Beste zenbait Internet eta antzekoekin bere abenturatzak osatzeko prest.

Dena jendea, dena bultzada eta hala eta guztiz denak aurpegi alaiz, ez zen inor haserretzen.

- Kontxo, zer moduz aspaldiko...!

- Joño, hementxe ba... gripe piska bat aldean, baina hona bueltatxo bat egin gabe ezin ba...!

Eta halaxe, ostegunean hasi eta igandera bitarte, batzuk joan eta gehiago etorri.

Bestalde, azokatik at, kantaldi, kontzertu, omenaldi eta abar luze bat. Dena ondo antolatuta.

Diotenez, niri hala iruditu zitzaidan, inoizkorik handiena. Antolatzaileretako batek azaldu zuen bezala: "Jendetza honek aurreko tokiekin harrapatuz gero... atek itxi behar".

Zorionak, beraz, antolatzailer eta laguntzaile guztioi, "Semaforo gorriak" zioen bezala, itxaropena eta ziurtasuna uztartu dituzuelako eta batez ere Durangoko



Azoka euskal kulturgintzaren Neguko Euskal Unibertsitatea (NEU) bihurtu duzuelako. Urte askotan.

Abel Enbeita

postariak ekarria



**EZJAKINEN
EZJAKINAK
HAMAIA
AUSARKERIA
ERAGITEN
DU**



ZERTZELADAK izenburupean hainbat hilabeteetan Alberto Ansolaren iritziak izan ditugu orrialde honetan. Orain, ordea, beste zeregin batzuetan lanpetuta dabilela eta, denboraldi batez, atsedenaldira bat hartuko du. Hala ere, aurrera begira, hileroko maiztasunarekin ez bada ere, bere artikuluak irakurtzeko aukera izango dugula adierazi digu.

Lerro hauen bidez, Alberto Ansolari eta beste kolaboratzaile guztioi aldizkari honetan parte hartzeagatik gure eskerrik beroena azaldu nahi dizuegu.

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Abesbatza euskalduna abiatu nahian

G o g o e t a k

Ezaguna da euskaldunok, aspaldidanik, ahots-musikarekiko izan dugun zaletasuna. Hala ere, bakarlarigisa baino, lagun artean nahiago izaten dugu kantatzea. Araban, esaterako, kanturako zaletasuna itzela da: edonon eta edonoiz sortzen dira koruak, baina ia guztietan, gaztelera da lan-tresna. Gure euskaltzale bi hauek eratu nahi duten abesbatzan, aldiz, euskaraz jardungo da, mundu osoko kantak ikasiko badira ere.

ARABAN, ANTZA DENEZ, INON BAINO KORU GEHIAGO DAUDE FEDERATUTA. ZER DELA ETA BESTE BAT ERATZEKO ASMOA?

Ezagutzen ditugun Arabako abesbatza guztietan, gaztelera da lan-tresna nagusia. Batzuetan, euskaraz kantatzen badute ere, entsaioetan eta, gaztelerez jardun ohi dute. Guk, berriz, euskaraz aritu nahi dugu.

AURRETIK, EZ DA ANTZEKO ESPERIENTZIARIK IZAN?

Agian bai, baina euskaraz lan egitea baino, euskal kantak ikastea zuten helburu. Guk, ordea, mundu osoko kantak landu nahi ditugu.

EKIMEN HONEN SUSTATZAILEAK ZARETEN ALDETIK, ZEIN IZANGO DA ZUEN EGINKIZUNA?

Gu zaletuak baino ez gara, baina aspaldian gabiltza musikaren munduan: solfeoa ikasten, soinu eta txistua jotzen, abesbatzetan kantatzen etab. Hortaz, eskarmentu apurra badaukagu. Hori aprobetxatuz, hasiera batean, koruaren jarduna bideratuko dugu oinarritzko zuzendaritza-lanak geureganatuz. Baina, gu ez gara zuzendariak, kantariak baizik. Horregatik, ekimena aurrera baldin badoa, baliteke kalitatezko zuzendari bat ekarri behar izatea.

PARTE HARTU NAHI DUTENEI ERE SOLFEOA ESKATUKO DIEZUE?

Kantatzea gustokoa izatea da baldintza bakarra. Solfeoa jakitea

lagungarria bada ere, ez da beharrezkoa. Ahots-musikako irakasle sonatu batek esaten zuen bezala, hitz egiten dakien edonor, kantatzeko gauza ere izan daiteke.

ETA ZER EUSKARA-MAILA BEHARKO DUTE?

Arabako hizkuntza-egoeraren jakitun gara eta ez genuke inor baztertu nahi, lehen urratsetan baldin badago ere. Denon artean, ulertzeko bide emango dugu nola edo hala. Beraz, ez izan beldur ikasten ari zaretenok eta anima zaitzete!

TALDEA MISTOA IZANGO DA?

Bai, aukera gehiago ematen baitu arlo guztietan. Musikaren aldetik, ahotsen arteko elkarriketak aberatsagoak izaten dira. Harremanetan ere, giro polita sortzen da... Baina orain arte, izena emandako gehienak emakumezkoak dira.

Beraz, badakizu, euskaltzale eta kantazalea bazara, uxatu lotsak eta dei ezazu, lehen bait lehen, telefono hauetara: 22 93 29 / 18 76 51

Itziar de Blas Fdz. de Gamarra

SAUDADE ABESBATZA



GARAI BATEZ, euskaldunak, euskararen presentziari oso kezkatu so egiten bagenion ere, gaur egun (eta bakarrik errotulazioaz ari naiz) heldu garen tokira helduta, kantitatea baino nolakotasuna egin zaigu garrantzitsuago.

Erakundeetan ohituak dira beren kabuz itzulpenak egiten, askotan horrek dakartzan ondorio garrantzak agerian daudelarik. Ezer asmatzen ez dudala frogatzeko eta piska batean diberti zaitezten, gertatu zaidan azkena aipatuko dizuet.

Alava Jeneralaren kalean genuen Jabetza Erregistroak egoitza berria du orain Gaztelako atean, zazpigarren zenbakian, behealdean. Sarreran honako testu bitxia irakurri-

ko duzu horra hurbilduz gero: "GASTEIZKO JABETZA ERROTALDEAK". Horrez gain, barnealdean, alde guztietan ERROLDEA hitza ager-tzen zaigu. Hau ikusi ostean, badaezpada ere, Euskaltzaindia eta HAAE-IVAPen bulegoetara galdezka joan nintzen, tontaturik nengo-elakoan... eta ez, ene burua behar bezala zebilela ziurtatu zidaten. Errotaldeak "zona del molino" edo adierazten duela...

Bestalde, gauza bat da ERREGISTROA eta honekin antzarik ez duen ERROLDA hitza bestea. Eta ERROLDEAri buruz zer esan? Zein hizkuntza den askok ere ez dakite! Norbaitek aginduko balit "Registro

de la propiedad" euskara-tzeko, itzultzaile batengana joko nuke. Nola jakin dezaket, esaterako, "jabetza" ala "jabego" jarri behar den?



IZTABERNA
RA
JATEXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



HEGOALDE
euskaltegia

Florida kalea 58 behea
tfnoa 28 41 96
01005 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

1997KO URTARRILA / **geugasteiz** 9
aldizkaria



MUNDUKO IKUSKARIRIK HANDIENA

“Circus comes down”, zirkoa hirira iritsi da dio ingelesezko esaera batek.

Gasteizera, bi edo hiru zirko etortzen dira urtean zehar. Ez dute egutegi finkorik izaten, edozein urtarotan etortzen dira, baina bertan daudenean hiriak beste bizitasun bat izaten du. Azken aldiz abenduan izan genituen gure artean atrakzio miresgarrienak erakusteko asmoz. Marra zuri-gorriak dituen karparekin batera eta bestera ibiltzen den troupe berezi hau bertatik ezagutzeko aukera izan zuen Geu Gasteizek. Hona hemen..., zuekin..., Kataluniatik..., ta-ta-ta-txan... Raluyyy Zirkoaaa!



“ZIRKOA FAMILIA haundi bat bezalakoa da. Familia horretan batzuk malabaristak dira eta beste batzuk pailazokak, akrobatak, teknikoak, funanbulistak, kontorsionistak, prestidigitadoreak, barristak, ekilibristak edo domadoreak... dira. Hemen guztiok dugu lekua, baita gure aiton-amonek eta seme-alabek ere. 10 herrialde desberdinetako lagunek osatutako familia handia gara”. Hitz horiekin definitu

digu Raluy Zirkoa bertako arduradun batek.

Kataluniako zirko honek Gasteizko hipermerkatu baten aparkalekuan altxatu zuen bere karpa handia. Raluy Zirkoa 50 lagunek osatzen dute artista eta teknikoak kontuan hartuz eta izugarritzko tresna eta tramankulu pila garraiatzen dituzte itxura zaharreko euren gurdietan. Museo ibiltari honetaz arduratzen direnak Raluytarren laugarren belaunaldiko Luis eta Karlos anaiak dira: “Aintzinean egiten zen bezala antolatu nahi izan dugu zirkoa. Zirko klasikoaren giroa suspertu nahi dugu. Horretarako ikuskari klasiko bat prestatzeaz gain, zirkoak dituen berezko beste elementuak lantzen ditugu. Mende hasierako itxura duten 14 gurdi hauetan museo baterako pieza preziatuak izan daitezkeen bitxiak biltzen ditugu: egurrezko etxeak, 1927ko kafetegia eta 1936ko takila besteak beste”

Magia eta ilusioa

Beti toki berean, bizileku berean, aldaketarik gabe bizi garenontzat karpa zuri-gorriak sentimendu desberdin ugari sortzen ditu, baina guztietan zabalena mirespena izaten da. Artista hauek familia osoa hartu eta etxea gainean dutela batetik bestera ibiltzeko duten askatasunak harritu egiten gaitu: “Honelako bizitza batek askatasun haundia ematen dizu, eta alde hortatik pri-



KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO

COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



bilegiatuak gara. Karibe, Islandia, Afrika, Europa, Hego Amerika, Asia eta mundu osoan ibili gara. Guk bisitatu izan ditugun herrialde batzuetan ez zuten zirkoa ezagutu ere egiten. Adibidez, 300.000 biztanle dituzten Caribeko Gabon eta Barbado irletan gure zirkoak sekulako ikusmina sortu zuen. Hilabete horretan 350.000 sarrera saldu genituen, Barbado osoak gure ikuskaria ikusi zuen, batzuk gainera bi aldiz" adierazi digu Luis Raluyk.

Zirkoaren filosofia

Familia baten inguruan sortutako zirkoak asko dira, baina ikuskariaren muina guztietan bera da. Mosku, Ringling, Bostock, Krone, Medrano, Orrin, Price, Barnum & Bailey dira zirko famatu batzuren izenak.

Historian egon diren famatuena seguruenik. Batzuk desagerturik daude gaur egun, baina beste batzuk bizirik diraude. Guztiek, hala ere, 1767an Londonen Philip Astleyk sortutako lehenengo zirko haren filosofiari jarraitzen diote. Eguneroko entrenamendu gogorrak helburu bakarra du zirko partaidearentzat: gero eta zailtasun handiagoa eta perfekzio handiagoa eskatzen duten jauzi, akrobazia edo atrakzioa burutzea. - Eta jarraian, oraindik zailagoa den eta inoiz egin den jauzi arriskutsuena..., sarerik gabeko jauzi hirukoitza... ikusiko duzue! "Besteek egindakoa gainditu nahi horrek gogorra eta neketsua egiten du zirko lana. Ohikoak izaten dira istripuak eta ukaldiak gure lanean. Gainera, egunero gauza bera errepikatu beharrak ere nekatu egiten du. Baina jendearen harrera ikusten

duzunean, sentsazio horrek indarrak berritzen dizkizu" aitortu digu Luis Raluyk. Eskerrik asko hainbeste ilusio eta arratsalde magiko eskaintzeagatik. Agur.

Karlos Fdz. de Betoño

MUNDUKO
IKUSKARIRIK
HANDIENA



Zirkoaren hastapenak

ZIRKOAREN sustraiak denboraren denboretan galtzen dira. Gaur eguneko zirkoak eskaintzen duen ikuskizunaren lehen zantzuak Erdi Aroan aurki ditzakegu. Juglarrak, malabaristak eta titiriteroak izan ziren ikuskari erraldoi honen lehen sortzaileak. Zirko modernoa deritzona, 1768an Philil Astleyek sortu zuen Ingalaterran. Zaldiekin prestatutako ikuskizun berriak izugarriz-

ko ikusmina sortu zuen berehala herriarregan. Jendearen grina ikusirik, ikuskizun horren barruan akrobatak eta malabaristak ere gehitu zituen. Handik aurrera Estatu Batuetan eta European ideia hedatuz joan zen. Harrezkero, 15.000 ikuslerentzako Ringling bezalako zirko handi batek edota zirko txiki batek, den-denek, elementu horietan oinarritutako ikuskaria eskaintzen dute

udal ordenantzak urte berriko kontu zaharrak

Euskararen Udal ordenantzak oraindik onartu gabe daude



1996. URTEA

joan zen eta Gasteizen euskararen erabilpena normalizatzeko hain beharrezkoak diren Udal Ordenantzak oraindik ere onartu gabe daude. Udal-gobernuak behin eta berriz atzeratu du gai honen erabakia eta aurrez jarritako epe guztiak aldioro luzatu egin ditu. Euskaltzaleon Elkarguneak Udarekin akordioa lortzeko azken epea iazko abenduaren 31 zela adierazi zuen. Azken epe hori ere agortu da eta hil honetan alderdi politikoekin hitz egin ondoren, eurekin adostutako Ordenantzak plenora eramaten saiatuko dira. Ekargunearen ustez, "ezin da gehiago itxaron eta, behingoz, aurrera edo atzera egiteko eskatu-



ko zaio Udaleko gobernu batzordeari. Bere garaian alderdiekin adostutako Euskararen Udal Ordenantzak atzera botatzen badira, beste bide batzuk jorratzen hasteko garaia iritsi da".

Gai honen inguruan Euskaltzaleon Elkarguneak abenduan antola-

tutako mahai inguru batean parte hartu zutenen ustetan, Udalak Ordenantzak aurrera ateratzeko borondate eskasa du. Horren adierazgarri dira bertan emandako datu hauek: Udalak guztira 40.000 milioi inguruko aurrekontua izanik, euskararen erabilera sustatzeko 40 milioiko dirutza dauka aurreikusia, hots, aurrekontuaren %0,1a baino ez.

Iñaxio Agirre Donostiako Udal patronatuko kideak hitzaldian esan zuenez, "helburu txikiak eta zehatzak" planteiatu beharra dago eta "gaur egun euskaldunok jasaten dugun defizit demokratikoa aurre egiteko euskaldunon indarrak batzea" da garrantzitu-

sua. Elkarguneko kideek adierazitakoaren arabera, euskaldunon eskubideak errespetatzeko Gasteizko Udalean sare euskalduna sortzea ezinbestekoa da eta alkatea ez omen dago horretarako prest. "Hori eskatu diogunean bi administrazio sortzea ezinezkoa dela esan digu, nahikoa dela bakarrarekin". Erdalduna, jakina.

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEBEKI

Pío XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

01004 VITORIA-GASTEIZ

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Kulturan zer



GEU GASTEIZ

Bertsolaritza

Geu Elkartek Geu Gasteiz aldizkariaren 50. zenbakia ospatzeko, bertso saioa antolatu du

Literatura

Jardun elkarte bergararrak amodiozko gutunen V. Berrigara lehiaketarekin etorri zaigu

Argazkilaritza

Gasteizko Amnistiaren Aldeko Batzordeek euskal presoak Euskalerriratzeko asmotan, argazki lehiaketa antolatu dute

.. eta abar luzea



badok/n 50

Zenbaki askotxo dira 50. Izerdi eta malko ugari. Farre eta algara gehiago. Aldizkari honek otsailean 50. zenbakia kaleratuko du, eta egoera berezi xamar batean egiten du gainera. Beste euskarazko herri aldizkariak bezala, egoera ekonomiko larrian dago Geu Gasteiz, eta harpidetza kanpaina egitera behartua ikusi du bere burua. Ez zaigu erraza gertatzen gure aldizkaria irakurtzen dutenei dirua eskatzea, baina zorrak hor dira eta egoerari aurre egin behar zaio.

Baina bestetik, aurrerapausu nabarmena ematear gaude. Hasera batean, euskarazko aldizkari bat kaleratzeko beharra ikusi genuenean, horretan abiatu ginen, eta baita egin ere. Horixe zen helburua eta horrekin konforme geratu ginen. Baina jada, helburu hori erabat errotuta dago eta beste asmo batzuen bila abiatzeko ordua delakoan gaude. Geu Gasteiz kalitatezko aldizkari bihurtu nahi dugu, bai diseinu fresko eta exigenteago gauzatuz, baita zeu-on, Gasteizko euskaldunon, artean interesa piztu dezakeen mamia eskainiz ere.



e
g
u
n
e
k
o

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman  n!

Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

	Jose	
Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

BERTSOLARITZA

geugasteiz^{aldizkaria} ren 50. alea ospatzeko

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA



Andoni Egaña
Anjel Mari Peñagarikano
Asier Otamendi
Jon Sarasua
Igor Elortza
Aitor Mendiluze
... eta Gasteizko bertsolari
gazteak

*Otsailaren 15ean, larunbata
arratsaldeko 6etan*

sarrerak:

600 pta aldez aurretik,
urtarrilaren 20tik aurrera
Bagare Euskaltokian,
Herrikoia eta Axular
liburudendetan
Egunean bertan
800 pta

PRINCIPAL ANTZOKIAN

antolatzaileak:



geugasteiz^{aldizkaria}

Gasteizko AMNISTIAREN
ALDEKO BATZORDEEK,
urtero bezala, euskal presoak
Euskalerriratzearen alde,
argazki lehiaketa antolatu
dute:

GAIA:

Euskal Herria

LANAK:

zuri beltzean edo koloretan. Lan
bakoitzaren atzeko aldean lanen
tituloa, eta egilearen izena,
zuzenbidea eta telefonoa jarri
behar da

EPEA:

Urtarrilaren 19a baino lehen

NORA BIDALI:

Amnistiaren Aldeko Batzordeak
Santa Maria kalea 6. behea
01001 Gasteiz

SARIAK:

- garaikurra eta 15.000 pezeta
- garaikurra eta 10.000 pezeta
- garaikurra
- aipamen berezia: herriko
produktuak



LA RIOJANA
jatetxea
on egin! EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39



EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo
platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

AMODIOZKO GUTUNEN V. BERRIGARA LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA:

Jardun Euskal Elkarte

LAGUNTZAILEAK:

Bergarako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

SARIAK:

- 1go saria: 75.000 pezeta

- 2. saria: 40.000 pezeta

- Irakurle gazteek emandako
saria: Xabier Diaz de Zerioeren
eskultura bat

EPEA:

urtarrilaren 17a arte.

NORA BIDALI:

Jardun Elkarte

Masterreka, 13 behe

20570 Bergara

Gipuzkoa

BEKAK



JOSEBA JAKA I. LITERATUR BEKAK

1996
Euskalgintza
Elkartean
Fundazio

Olerkia • Eleberria •
Saiakera • Gazte-literatura

INFORMAZIOA ESKATZEKO JO ZUZENBIDE
HONETARA:

BILINTX MEGADENDA
FERMIN CALBETON 21
20003 Donostia

TXANGOAK

GEUrekin mendir

TOLOGORRIa
(URTARRILAREN 19an)

IRTEERA: Goizeko bederatzi
t'erdietan, Prado kalean, Txapela
tabernaren aurrean.

ITZULERA: Hiru t'erdietan.
AUTOBUSA IZANGO DA




ZAHAR SERRIDO ZINDO

GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



Klaseak euskaraz

OHO (EGB)

BBB (BUP)

UBI (COU)

LH (FP)

Uztailetik aurrera zabalik



GEU
BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea
(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)

12 09 50
909 42 88 36

Etxepare eta Atxaga elkarren ondoan

"EUSKAL Literatura klasikoaren mugarriak" izeneko erakusketa interesgarria zabalik izango da oraindik ere urtarilaren 13ra arte. Erakusketa honetan, Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*, Leizarragaren Bibila, Koldo Mitxelenaren antiojoak, Joxe Mielen euritakoa, Atxagaren *Obabakoak* ikusi edo Larramendi eta Kanpionen lan klasikoetan CD-ROMen bidez murgiltzeko aukera eskaintzen da. Vital Kutzaren aretoan jarri duten bilduma honen asmoa didaktiko samarra da. Carmen Gomez Sancho el Sabio fundazioaren zuzendariaren arabera, helburu nagusia euskarazko literatura jendeari ezagutaraztea da, bai zeozer dakitenei eta bai belaunaldi berriei ere, baina betiere modu didaktikoan". Horretarako zenbait euskarri erabili dituzte, adibidez, 46 panel bistaratu dituzte euskal literaturaren mugarriak nagusien berri emateko.

Geu Elkarteko egutegiak

Geu Gasteiz aldizkaria harpidetza kanpaina dabilela-eta, eta otsailean 50. zenbakia argitaratuko duela-eta, Geu Elkartek aldizkariari lagun-tzearen bere irudia erabili du aurten 1997. urteko egutegietan. Bi motako egutegiak kaleratu ditu: poltsikoan eramatekoak eta orman ipintzekoak. batzuk nahiz besteak 'Herrikoia' eta 'Axular' liburudendetan eskura ditzazkezu dohainik, baita 22 21 53 telefonora deituta ere.



"Bertsolariak Gasteizko Plazara"

Urtero GEU elkarteak Principal Antzokian urtarila aldera antolatzen duen "Bertsolariak Gasteizko Plazara" izeneko bertso saioa ez dugu hile honetan izango aurten. Izan ere, GEU GASTEIZ aldizkaria orain arte irakurle izan dituenen artean harpidetza kanpaina egiten ari da 1996ko azarotik 1997ko martxora bitartean. Trukean, martxotik aurrera GEU GASTEIZ barruko itxura eta mamia berriak dituela agertuko zaio harpidetza bete duen gasteiztar orori. Hori dela medio eta otsailean 50. zenbakira iritsiko dela ikusita, datorren hilean aldizkariari berari buruzko ale berezia kaleratuko du GEU GASTEIZ-ek..

Beraz, 50. zenbakia argitaratzearekin batera GEU GASTEIZ aldizkariak hasiko duen etapa berria ospatu nahi duela-eta, aurtengo "Bertsolariak Gasteizko Plazara" izeneko bertso saioa hilebetekariari eskainiko zaio eta Principal Antzokian izango da otsailaren 15ean, larunbata, iluntzeko 8etan. Bertan honako bertsolari hauek hartuko dute parte:

- Andoni Egaña • Anjel Mari Peñagarikano • Asier Otamendi
- Jon Sarasua • Aitor Mendiluze • Gasteizko bertsolari gazteak

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA
otsailak 15 iluntzeko 8etan
PRINCIPAL ANTZOKIAN

5 sarrera dohainik izango dituzte kupoñ hau
'Herrikoia' liburudendan urtarilaren 20an
aurkeztuko duten lehenengo 5 pertsonak (sarrera bana)

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
 Tfno. 14 64 10
 GASTEIZ

AMILAMIA
 arropa eta osagarriak

PINTORERIA, 17
 tfnoa: 27 40 09
 GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
 Virgen Blanca, 1
 Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑELA
 KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
 KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

SAN ANTON eguneko txerriaren zozketa

t

Txerria da oraindik ere San Anton eguneko

protagonista nagusia. Txerria baino sari erakargarriagoak zozketatzen dira, ordea, aspaldidanik urtarilaren 17an. Esaterako, egun gutxi barru egingo den zozketan, tradizioz Txerriaren Zozketa bezala ezagutzen den horretan, Kubara bidaia, bideokamara, ordanagailua... eta beste hainbat gauza zozketatuko dira.



SARIAK GARAI modernoetara egokitu arren, San Anton eguneko tradizioaren zenbait ezaugarriren jatorria aurkitzeko 1781. urtera jo behar dugu. Orduantxe egin zen lehenengoz txerriaren zozketa. Horren helburua, XVII. mendearen amaieran, umezurtegiak bere zerbitzua eskaintzen jarraitzeko dirua lortzea zen. Egun, San Prudentzio erresidentziak antolatzen du zozketa, nahiz eta bere diru beharra Udalaren aurrekontuak asetzen duen.

Ramon Churruca San Prudentzioko

zuzendariak dioenez, "garai batean diru horren menpe zeuden etxearen aurrekontuak. Egun, ordea, San Anton egunez ateratzen dena barik ere bizi gintezke".

Aurten 100.000 boleto jarri dira salgai, bakoitza 50 pezetatan. Iazko joerari eutsiz gero, 60.000 boleto inguru salduko dira; kontuak egin eta gero milioi eskas bat geratuko da Frantzia kaleko etxean. "Diru hori normalean, aisialdiko ekimenetarako bideratzen dugu".

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

Tradizioari eutsi

Txerria da zozketa honetako protagonista nagusia baina bigarren mailako aktoreak ere badaude: erresidentziako aiton-amonak batetik eta eskoletako haurrak bestetik.

San Prudentzioko biztanleek saltzen dituzte boletokak, beraiek ateratzen dituzte saritutako boletokak eta, batez ere, beraientzat egun handia da San Anton.

Bazkaldu eta gero hasi ohi da zoramena erresidentzian. Eguneko lehen zita arratsaldeko bostetan izaten da, San Pedro elizako atarian. Bertan sari nagusia, txerria, bedeinkatu eta jaiari hasiera ematen zaio. Udala da San Pedro ondorengo geldialdia eta eguneko helburu nagusia, bertan egiten baita zozketa.

Zozketa eta gero hurren txanda iritsi ohi da. Izan ere, San Anton eguneko tradizioari eusteko ahaleginean ibili direnak aspalditxo ohartu ziren ezin zela urteen poderioz hori desagertzen utzi. Jarraipenaren bermerik onena haurrak izaten direla eurekin zerbait egitea otu zitzairen. San Anton Txiki da ideia horren emaitza: Gasteizko eskoletako neska-mutilentzako jai. Eta, jakina, zozketa eta txerri propioa duen jai da. Gasteizko eskola guztien artean txerri bat zozketatzen da 90 kilo... txokolatez egindako txerri goxoa!

Leire Lopez de Aberasturi



DUELA 216 URTE...

Lehenengo San Anton zozketa egin zela 216 urte igaro dira jadanik. Urtarrilaren 17an ospatzen dena duela bi mendetako nekazal gizarte batetik datorren tradizioa da eta gaur egungo gizarte urbano eta modernoak bere horretan mantentzen jakin du. Zozketa hau erakargaria izaten jarraitzeko, hala ere, aldaketa batzuk egin izan dira.

XVII. mende bukaeran, txerriarekin batera, umezurztegiako neska-mutilek egindako zapiak eta orduko gizarteak beharrezkoak zituen lanabesak zozketatzen ziren. XIX. mendearen hasieran, berriz, Kubarako bidaia, mountain bikea, bideokamara, ordenagailua..., eta sari guztiak dira txerria bera baino garestiagoak (izan ere, askoz garestiagoak).

Zozketa ospatu zen lehenengo urte hartan Gasteizko pertsonaia garrantzitsuak ibili ziren boletokak

saltzen umezurztegiari laguntza bat emateko asmoz: Monte Hermosoko dukea, Alava familiakoak, Velasco berak, eta hainbat eta hainbat hiritar ilustratu.

Guztien elkarlanak 5.000 marabedietako emaitza ekarri zuen. Egun kopuru horren balioa zenbatekoa den jakin ez arren, garai hartan etxeak bere lana egiten jarraitzeko balio izan zuen.

XIX. mendearen amaieran San Anton eguneko zozketak garrantzi handia hartu zuen. Hori dela eta, Udalak joku, zozketa eta antzerakoak arautu eta kontrolatuko zituen batzordea antolatu zuen.

1997.ean horrenbesteko garrantzia ez izan arren, 216 urtetako ohitura bati eustek garrantzia ematen dio zozketa berezi honi.

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industrialak
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

KUTXI
kalean



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •



1997. urteak ez digu gauza handirik ekarriko

JUAN KARLOS TAROT KARTA-BOTATZAILEAREN USTEZ, "NAHIKO URTE KASKARRA IZANGO DA"



URTEA HASI BERRIA dugu eta guztiok jakin nahi izaten dugu honek zer berri ekarriko digun. 1997an nola ibiliko gara amodio, lan edo osasunez?

Iaz bezalakoa izango al da urte berria? Gure asmoak beteta ikusiko al ditugu? Gaitzerdi! okerrera ez bagoaz... Galdera hauei guztiei erantzuna aurkitzeko, horoskopoa irakurtzen dugu, bidente batengana jotzen dugu edo kartak botatzen dituztenengana hurbiltzen gara askotan. Azken hauxe da guk egin duguna. Taroteko kartak botatzen dituen Juan Karlos Extremeñorengana joan gara etorkizunak zer ekarriko digun jakiteko asmoz.

Juan Karlos gasteiztarra dugu eta zine-man operadore lanak egiten hamar urte eman bazuen ere, aspalditik datorkio parasikologiarekiko zaletasuna; hamazazpi urte zituenetik, hain zuzen ere. Orain dela zazpi urte, ordea, serioago hartu zuen zaletasun hori eta parasikologia ikastaroak egiteari ekin zion. 1990ean Tarot karten kurtso bat egin zuen eta harrezkero mundu bitxi honetan murgilduta igarotzen ditu eguneko ordurik gehienak.

“Indurainek bere seigarren tourra eskuratzeko aukera handia du”

Berari egindako bisitan extralurtarrekin kontaktuak izan dituela aitortu dugu seriotasun osoz. Onartzen du, bestalde, jende gehienak horrelako gauzetan ez sinestea.

Tarota

Lehendabizi tarota zer den azaldu nahi izan du. Argi uzten dugu kartetan etorkizuna irakur daitekela eta kartek esaten diotena esaten duela eta ez kontsultara datorren pertsonak entzun nahi duena. “Nik ezin diot pertsona bati berak entzun nahi duena esan, kartetan agertzen dena agertu behar diot” esaten du serio-serio jarrita Juan Karlosek.

Tarot kartetan batetik arkano handiak

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

IPARRA
taberna
Gino ezin hobea!
Florida, 80
Tfnoa: 26 77 81
GASTEIZ

TABERNA
Upabi
San Antonio, 39

daude eta hauek gizakien idea eta izpiri-tuzko gaiak azaltzen dizkigute; eta, bes-tetik, arkano txikiak daude: gauza mate-rialei buruzko informazioa ematen dute. "Karta guztiak elkarrekin lotuta daude eta bide bat erakusten digute, bizitzaren bidearen gisa" azaldu digu Juan Karlo-sek.

Ez dakigu oso ondo nondik datorren tradizio hau, baina teoria gehienek Egipton kokatzen dute bere jatorria. Hala ere, Euskal Herriak badu bere Tarota, Maritxu Pudoik diseinatutakoa hain zuzen. Nafarroan andre hau sorgintzat hartzen zuten. Juan Karlosek ez du baztertzen etorkizunean berak ere Tarot karta-joku propioa diseinatzea. "Momen-tuz ezin dut baina etorkizunean nire asmoa horixe da, nire tarota egitea".

Azkenaldian arrakasta

Argi dago gero eta jende gehiagok horrelakoetara jotzen duela etorkizunak gordetzen dizkigun ezustekoak jakiteko asmoz.

Azken urteetako "boom" hau azaltzeko Juan Karlosek badu azalpenik: "Jendea kezkatuta dabil eta lehenbailehen jakin nahi izaten du zer izango duen aurrean. Dena den, boladak izaten dira, batzuetan jende asko etortzen zait eta beste batzue-tan inor ez. "Jendeak entzun nahi duena, orokorrean, lana eta amodio kontuak izaten dira baina denetatik dago" dio Juan Karlosek.

Berak adierazi digunez, kontu handiz ibili behar da igerle eta halakoeekin. Ziria

“Euskal tarota ere badago, Maritxu Pudoirena”

sartu nahi duen asko omen dabil tartean. "Telebistetan agertzen diren iragarki asko, adibidez, aurretik grabatutako zin-tak dira eta egindako galderaren arabera mezu bat edo bestea botatzen dute. Horrez gain, fama lortzen duten batzuk, Rappel eta bere antzekoak, ospe horretaz baliatzen dira edozertarako".

1997an zer?.

Juan Karlosek kartak bota zizkigun eta gauza asko aurreratu zizkigun.

Hasteko kirolari buruz mintzatu zitzaigun: "Alaves eta Baskonia taldeek ez dute oso urte ederra izango. Hala ere, diruz oso ondo ibiliko dira eta adi Basko-nariekin. Europan, behar bada, zer edo zer garrantzitsu egin baitezake". Txirrin-dularitzari dagokionez, azkenaldiko kezka nagusia ere argitu zigun: "Nik uste dut Indurainek bizikletan korritzen jarrai-tuko duela eta, gainera, aukera haundia du bere seigarren tourra eskuratzeko". Martin Fizek, ordea, urte lasaia izango du, garaipen garrantzitsu barik.

Politikaren alorrean Espainian Azna-

rek ez omen du urte erraza izango eta bere partidu barruan istiluak sor daitezke. Gasteizko Udalean, berriz, aldaketak somatzen dira, nahiz eta pertsona gogor bat beti aurrean egongo den bere ideiak azaltzen. Iaz egindako paktoa ez da uste bezain ona izango".

Amaitzeko gure aldizkari honetaz min-tzatu zaigu Juan Karlos. Argi utzi digu etapa berri batean sartuko dela eta tentsio haundiak izango direla barruko lanetan, baina urte bat pasa eta gero, konsolida-tuta egongo dela Gasteizen. Horrez gain, hurrengo egunetan harpidetza kanpaina arrakastatsua izango dugula ziurtatu digu.

Besterik ez, ez da gutxi, hala ere. Zure jakinmina asetu gabe geratu bada Juan Karlosekin jar zaitezke kontaktuan hona-ko telefono honetan: 14 30 88.

Asmatu ala ez, gauza batetaz, bederen, ziur egon gaitezke: argi izan behar dugu etorkizunak beti berak nahi duena ekarri-ko digula eta ez guk nahi duguna.

David Alvez



HEGOA

KLS

PSIKOLOGIA ETA LOGOPEDIA
ZENTRUA

- ✓ HELDUEN ETA HAUREN
- ✓ PSIKOLOGIA
- ✓ HIZKUNTZ ARAZOAK
- ✓ AHOTS ARAZOAK
- ✓ IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Gasteiz Hiribidea 46 - 1. esk
220136 GASTEIZ

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara
irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea
26 03 54

ONGI
ETORRI
KUTXI 103
GASTEIZ

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuperaturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisanu lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu
Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

AMATIBO
ALTZARIAK

LA POLLA:

BETIKOAK BERRIRO ELKARREKIN

"¡Carne para la Picadora!" titulupean agertzen zaigu Aguraingo bostekoaren lanik berriena. Zenbatgarrena da? Asko, asko dira dagoeneko; gehiegi ote? Inola ere ez.

Berri onak La Polla-koek eman dizkigutenak: disko bikaina burutu dute eta jatorrizko taldekide guztiak elkartu dituzte. Hementxe ditugu, bada, orain hamabost urte bezala: Fernando bateriarekin, Evaristoren ahotsa, Abel baxujole eta Sumé eta Charly kitarra lanetan.

Gor Nafarroako argitaletxearen eskutik La Pollak inoiz galdu behar izan ez zuen indarra berreskuratu du eta berrindartze hau ospatzeko "¡Carne para la Picadora!" gure mugetatik urrun ere zabaldu nahi izan dute: Argentinak, Mexikok eta EEBBek laster izango dute euren kaleetan La Pollaren lanik berriena.

Ezaugarriak

Heldua: horrelakoa dugu disko hau. Eta harrigarria, gutxi espero zuten aguraindarrak hasierako indarrari eusteko gai izatea. Baina, bai, lortu dute, bizirik ditugu oraindik. Berehala klasiko bihurtu daitekeen disko berri baten aurrean gaudela esan daiteke. Zorionak La Polla-ren jarraitzaileei!

Sendoa: inoiz baino sendoagoa, gainera, La Pollaren disko hau. Eta inork ez luke harritu behar "sendoa" hitza irakurtzerakoan. Urteetan entsaio-lekuan emandako

kontaezinezko orduak emaitza onak ekarri behar dizkie Aguraingoei.

Hamairu abestik osatzen dute diskoa, guztiak aipagarriak, baina azpimarra ditza-gun ale horietako batzuk: "¡Carne para la Picadora!" diskoaren izpiritua eta ideia era garbian azaltzen duena da. "Gol en el Campo" lehendabiziko single-a, betikoa; "Amigo, Si Quieres Currar" edota "Tan Sometido" kantak La Polla-ko lagunek betiko ironia ez dutela galdu gogorarazten digutenak.

"¡Carne para la Picadora!" La Polla-ren zenbatgarrena? Berdin dio. Beririo ditugu airean La Polla-ren soinuak eta horrek du benetan garrantzia.

SEGURASKI jakingo duzu Aguraingo La Polla punk-rock taldeak, kalean duela "¡Carne para la Picadora" izeneko bere azkenengo lana. Berrizko Lorentzo Records-en gauzatutako disko hau Argentinan, Mexikon eta EEBBetan argitaratuko dute eta lurralde horietatik Hego Amerika osoan zehar zabalduko da. Marino Goñi, La Polla-ren lehenengo diska-lanen produktorea izan zena laguntzaile dute berriz ere, eta, gainera, grabazio honetarako Charly lehengo kitarrajolea berreskuratu dute.



SAren azken diska

URTE BAT pasatu da SA-k "Ratas" izeneko diska aurkeztu zigutenetik eta hementxe ditugu berriz ere "Diversiones" maxi-CD-a zabaltzeko asmoz. Tituluak berak argi eta garbi azaltzen du talde gasteiztarrek lortu nahi izan duen emaitza musikala. Hurrengo alean orri hauetara ekarriko ditugu azken lan horri buruzko azalpenak emateko. Ez ahaztu!



Arte Ederrei buruzko Sailik
zabalena ezazu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak pintzelak lientzoak
oleoak ikatzkiloak olioak
akuarzela kaballetreak etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
eusalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIARI

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Biltegia: Urtiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

EYSKAL OKELA
LASAGABASTER


harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

del txistu a la telecaster

CRÓNICA
DEL ROCK VASCO

Elena López Aguirre



EZ DA ENTZIKLOPEDIA BAT,

ezta gida liburu modukoa ere, ez. Inork Euskal Herriko historia musikala idatzi behar izango balu, hori Pablo Cabeza genuke. Horrela aurkezten du Elena López Agirrek bere lana. Anekdotak, gertakizun mausikalak, data bereziak, rock taldeak eta abestiak bilduz osatutako liburua dugu.

Txistutik telekastertera: Euskal Herriko Rock'n Roll-aren historia

“El Tubo” eta “Muskaria” aldizkarietan eta EGIN-en “Bat, Bi, Hiru” gehigarrian oinarritu da Elena Euskal Rock 'n Rollaren estraineko urratsak gogoratu ahal izateko; rocka eta euskera erabat banaturik zeudeneko garaiak, Hertzainak taldekoek punk euskalduna egitea posiblea zela azaldu zigutenekoak gogorarazten dizkigu liburu honek. Baita Itoiz taldea berbenetan aritzen zen garai hura ere, Kortatu-ren skarekin gozatzen genueneko garaia eta RIP-ek “ez zaitez mugitu” agintzen zigunekoa ere. Azken batean, ezin ahaz ditzakegun gure historia berrienaren urte horiek!

Autoreak, bestalde, ez du baztertu nahi izan urte horietan musikariek zutik jarraitu ahal izateko pairatu behar zituzten egoera latzak: lan segurtasun eza, karreteran bertan bizitzearen arrisku handiak... eta ezta, zoritxarrez, betiko desagerturik daukagun gure hiriko talde mitiko bat:

Cicatriz. Hauexek ditugu liburuan protagonista nagusiak. Liburu osoa Cicatriz-ekoei eskaintzea zen idazlearen jatorrizko ideia. Baina ez zuen egileak asmo hori erabat betetzea lortu: “Cicatriz-eko kideen senitartekoek eta lagunek ez zuten hitz egin nahi izan eta nire hasierako asmoa aldatu beharra izan nuen”.

Elena López Agirreraren ustez talde oso interesgarriak ditugu gaur egun Euskal Herrian: Gozategi, Maixa eta Itziar, Sociedad Alcohólica... Bakoitzak musika arlo propioak landuz, eskaintza erakargarriak agertzen dizkigute.

Lehengo egunak ez zaizkigu sekula itzuliko, baina gaurkoak ez ditugu, inola ere, gaitzetsi behar.

Musikazalea zara? Eta irakurzalea gainera? “Txistutik Telekastertera” da

TXABI ARNAL GIL


Floridako altxorra !

35

adaka **M**
madinabeitia

altzariak ■ apaindurak
Florida, 35 - tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

BOLOAK: gure betiko kirola



Marigorta genituen. Aurreneko hitza Isidorekin egin nahi izan genuen. Isidro 71 urte betetzear dago eta ibiltzen ikasi bezain laster boloen atzetik ibilitakoa da. Ederto ezagutzen ditu kirol honen gora-beherak, herriko bolatokiari zetxekion etxean jaio baitzen: "Boloak gure betiko kirola izan da. Orain hamarkada batzuk desagertzearegon zen, baina bolozaleen ahaleginari esker bizirik jarraitzen du. Lehen, herrietan kotxe eta motorrik ez zegoenean, bolatokia baino ez geneukan" dio Isidrok.

Eztarronako jaietan hiru bolatoki

Bolozaleak hartu du hitza beste behin ere: "Orduko Gasteizko Kutxak antolatutako txapelketek giroa berpiztu zuten. Herrien arteko lehiaketak bizia eman zien berriro bolatokiei. Horren ondorioz, Arabako federazioa sortu genuen". Isidrok hori esan eta bola bota du. Hankaren azpitik eta behin bakarrik jaurti arren, bolari ederra eman dio. Gainerako solaskideak, gazteagoak, aho zabalik geratu gara ikusitakoaren aurrean. Rockzaleak bezalaxe, bolari ona ez da inoiz hiltzen, antza.

Ondoren Luisek hartu du hitza. Bolari honek bitxikeria bat aditzera eman nahi izan digu, boloeak egun batean izan zuten indarra frogatzeko. "Eztarrona bezalako herri txiki batean hiru bolatoki ezagutu ditut festetan". Hala eta guztiz ere, baikor agertzen da etorkizunari begira: "Gero eta gazte gehiago hurbiltzen dira bolatokitara, eta hor daude haur, gazte eta emakumezkoen txapelketak"

Etorkizunari begira gazteengan dago gakoa, zalantzarik gabe. Egungo neska-mutilek aukera asko dauzkate aisi tartetarako. Ikastola eta eskoletan futbola eta saskibaloia dira nagusi; telebista piztu eta NBA txapelketa amerikarra ikus dezakete, edota are gehiago, zubi batetik euren burua botatzeko gauza dira. Hala ere, aukera horiek guztiak izan arren, "asko eta asko bolatokira datoz futbol partiduaren ostean" Eliasen uztez.

Idi pareta nahiz ondasunak jokoan

Zaharrenak hitz egitean, solasaldiak atzeratu jo du ostera. Aspaldiko kontuak diren

ZITA GASTEIZKO Foru plazako bolatoki ezagunean genuen eta hantxe zeuden lau bolari gure zain. Solaskideak Isidro Lopez de Aretxabaleta, Elias Isasi, Luis Martinez de Icaya eta Jose Martinez de

ELEKTRIZITATEA

muntaiak elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

J A T E T X E A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

arren, ezin hobeto gogoratzen ditu Isidrok: "Bolariek dirua zutenean, apustu egiten zuten. Eta sosik ez bazegoen, idi parean nahiz hazienda zeuden jokoan. Orduan patata eta erremolatxaren truke kobratzen genuen eta uztaren ondorengo egunetan bolatokietan dirua zegoela antzematen zen". Bestalde, bolaria izatea bigarren lanbidea zen askorentzat: "Zakua hartu eta boloak lepoan zeramatatzatela, bolatokiz bolatoki ibiltzen ziren, jokoan egunero". "Egunero eta gauero" gaineratu digu Luissek, "askotan gau osoa ematen genuelako. Hori, zoritxarrez, desagertu da".

"El 9" tabernako bolatokia

Orduko zaletasuna hain handia zenez, egun baterako bakarrik ere eraikitzen zituzten bolatokiak. Adibide gisa, autobus geltokikoa edo ganadu plazakoa. Hori bai, egun bereziak izaten ziren haiek, jai egunak alegia. Isidro gustura ari da hizketan: "Behin-behineko leku horietan Arabako txapelketak antolatzen ziren. Halere, bolatokirik ezagunenak "El 9" tabernan eta Betoñon zeuden. Han bolaririk onenak elkarrekin lehiatzen ziren". "El 9" taberna


- ✓ Bolariek erabiltzen dituzten hainbat hitz euskaratik hartuak dira. Besteak beste, karraka edo zula. Nor ausartu da euskara gurea ez dela esaten?
- ✓ Kirol honetan 1.000 bat bolari daude federatuta.
- ✓ Gure boloaz gain, hamaika bat bolo joko mota dago gurearen antzekoak direnak. Zerrenda luzea da: Burgosko boloa, Palenciakoa, Leonekoa, bowlinga, esku boloa, pasaboloa, hiru taula, Gipuzkoako eta Bizkaiko hiru txirlo eta toka. Ikus dezakezuenek, Gipuzkoan eta Bizkaian ere badago boloetan aritzeko ohitura. Egia esan, gainera, hiru txirloek eta bolo arabarrak antza handia dute.
- ✓ Arabar batzuek etxeko idi pareak galdu izan dute apostuetan, baina baita soldata ederra etxera eramanez beste batzuek.
- ✓ Arabarrek boloetan aritzeko duten ohitura aspaldikoa da. XVI. mendeko agiriek, esaterako, horixe erakusten dute

“Eztarrona bezalako herri txiki batean hiru bolatoki ezagutu ditut festetan”

egun desagerturik da, baina Frantzia kalean zegoen orain urte batzuk arte.

Lehen esan bezala, azken urteotako izarra herrien arteko txapelketa izan da. Igandero biltzen diren bolariek diru apustuak ahaztu dituzte eta, gaur egun, jokoan ohorea eta adiskidetasuna baino ez daude. Arabako ia herri guztiek parte hartzen dute lehian eta bolatokietan giroa ederra izaten da igande goizetan. Elkarrizketa bukatzerako, bola botatzeko irrikaz geunden gu ere. Hitz egi-teari utzi eta jokora, beraz. Gu ausartu gara, zu zergatik ez?

Ismael Diaz de Mendibil



kide



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

URIBERRI ON KONTUA!



GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA	PRENTSA KABINETEA Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g 16 13 08 16 13 44 Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



**Z E
E L
R E
B I
B I
I D
T U
Z N
U A
K**

... hor dago koxka



Harpidetza, 12
aldizkari urtean,
1500 pezeta.



Harpidedun guztien
artean sariak
zozketatuko dira.



Harpidetza +
Geu Gasteiz Kamiseta
2.000 pzta.



GEU Elkarteko
bazkide izanez gero,
aldizkaria dohainik

**GEU Elkartek beste proiektu
hauek ere bultzatzen ditu:**

- Mintzalaguna
- Euskarri Kirol Kluba
- Irrati euskalduna
- Umeen elkar trukaketak
- Abesbatza euskalduna
- Geurekin mendira taldea
- Eta abar...

*ji Gasteizen euskaraz egiten diren
kultur ekintzen berri etxean postaz
izango duzueji*



Proiektu hauek lagundu nahi
badituzu bazkide egin zaitezke.
Kuota 5.000 pzta urtean.
Telefonoa: 22 21 53.

**lagun
hauek zure
etxean
agertuko
zaizkizu:**



HARPIDETZA TXARTELA

geu aldizkaria gasteiz

Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrontea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

